

HAMAZAZPIGARREN ERAKASPENA

L'Oiseau de retour au nid : -3 –

- Tu l'as dit ! J'étais parti vers les pâturages des montagnes, le baluchon sur le dos, sans connaître un mot de la langue de là-bas, et quand je rencontrais quelqu'un obligé de me faire comprendre par signes. Au bout de deux ou trois jours à marcher comme cela, crevé, enfin je vis un berger basque (d'Urepel, le pauvre) et je tombai dans ses bras, de grosses larmes dans les yeux, comme un enfant perdu tombe dans le giron de sa mère. Grâce à cet homme généreux, après être resté trois jours dans sa cabane, je repartis chercher du travail, mais nulle part on n'avait besoin de berger.

Enfin, alors que j'étais désespéré, étant passé par des difficultés indicibles, heureusement, dans un endroit, on était en train de faire une nouvelle route, je me suis mis au travail en tant que porteur de pleines corbeilles de terre sur le dos, jusqu'à rassembler l'argent pour le voyage de retour. Et voilà comment je suis de nouveau dans mon cher village de naissance, ayant fui cet épouvantable coin de l'enfer. Ne fais pas Arnaud, une telle folie. Ne va jamais en Amérique.

- Diantre ! Par l'âme des diables. Erramun, avec ce que j'ai entendu de tes lèvres j'en sais assez sur ces terres maudites pour les fuir tant que je vivrai. Tiens, maintenant, ayant laissé de côté ces vilaines et tristes pensées, buvons pour nous réjouir le cœur. Madame la patronne ! Patronne ! Amenez une autre bouteille.

GRAMATIKA

“ O “ = TANT QUE
1- Tant que papa est ici, je n'ai pas peur : Aita hemen deno ez naiz beldur.
2- Tant que mes forces dureront, je ferai quelque chose : Ene indarrak irauten duteno, zerbait eginen dut.
3- Tant que le maçon travaillera chez nous la maison se salira : Harginak gure etxean lana eginen dueno (<i>lanean ariko deno</i>), etxea zikinduko da.
4- Tant que ce sera la croissance de la lune, nous n'émonderons pas les arbres : Ilhargi gorapena izanen deno zuhaitzak ez ditugu ixardekatuko.
5- Tant qu'il neigera, nous ne roulerons pas en voiture : Elura ariko deno, beribilez ez gira anbiduko.
6- Tant que l'enfant dort, ne faisons pas de bruit : Haurrak lo ari deno, arrabotsik ez dezagun egin.
7- Personne ne se connaît tant qu'il n'a pas souffert : Nehork ez du ezagutzen bere burua ez dueno sofritu.
8- Tant qu'il y a de la vie il y a de l'espoir : Bizia deno, bada itxaroa.
9- Garde toi, tant que tu vivras, de juger les gens sur leur mine : Zain hadi, bizi haizeno jendeen erabakitzea itxuran.
10- Ne partez pas jusqu'à ce qu'il soit revenu : Ez zitela joan, hura berriz etorria (<i>itzulia</i>) deno.
11- Tant que tu y es, faisons cela : Hor haizeno (<i>hizano</i>), hori egin dezagun.
12- Tant qu'il y aura des hommes et des femmes sur la terre, de grandes choses se feront : Gizonak eta emazteak izanen direno, lurrean gauza handiak eginen dira.
13- Nous l'attendons, jusqu'à ce qu'il fasse le travail : Haren aiduru (<i>beha</i>) egonen gira, lana eginen dueno.
14- Nous garderons le silence jusqu'à ce que Gracieuse finisse la couture : Ixilik egonen gira Gaxuxak jostea bururatuko dueno.

ITZULPENA :

IZAN – indicatif imparfait – conjug. familière
1- Jean où étais-tu hier ? Maitexa tu le sais bien, j'étais à Bordeaux :
2- Je te prie de m'excuser Jean, je ne me le rappelais pas, hier j'avais fort à faire avec mes trois enfants et les quatre autres du voisin à garder et à faire manger :
3- Je le sais chère Maitexa, je ne me formalise pas, surtout avec toi :

UKAN – indicatif imparfait – conjug. familière – NORK – NORI – NOR
4- Joseph ! J’avais vu Martin hier, il était beaucoup mieux que la semaine dernière :
5- Elise, si tu savais où nous étions avant-hier tu te réjouirais ! Où donc ? Nous étions chez ton frère Martin :
6- Il avait l’air en pleine forme :
7- Pour ne pas le froisser nous avons dû souper chez lui :
8- Nous avons parlé de toi Elise. Et en termes chaleureux :
UKAN – impératif- NOR – NORK
9- Michel, donne moi la clef et marche en avant :
10- Donne à cet enfant un jouet instructif :
IBILI – marcher – impératif –
11- Marchons ensemble pour ne perdre personne dans cette forêt sans repère :
12- Vous autres marchez lentement ! Le versant est escarpé et glissant par endroits :
13- Que ces enfants marchent sans rien toucher. Ces malades sont contagieux :
14- Toi, marche comme toujours et apprends cet adage « Toujours en avant, tout droit, marche le Basque » :
UKAN – subjonctif présent – conjug. familière :
15- Margaita, même si tu es une petite fille, maman veut que tu fermes les portes :
16- L’institutrice veut que les élèves utilisent le même livre :
17- C’est la décroissance de la lune, il faut que nous émondions les arbres du jardin
18- Ne faisons pas ce travail ! :
19- Qu’il porte l’acte notarié ! :
20- Il dit que le temps n’est pas propice pour que nous plantions les pommes de terre :
21- Qu’est-ce qu’il veut que je fasse :

-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-

1- Manex, atzo nun hintzen ? Maitexa, ongi badakin. Bordalen nindunan.
2- Othoi Manex, barka nezak, ez nindukan orhoit, atzo banikan ainitz egiteko ene hiru haurekin eta auzoaren beste lauak (lau beste auzoarenak) zaintzeko eta jan arazteko.
3- Maitexa maitia badakinat, ez naun gaitzitzen, guziz hirekin.
4- Koxe, atzo Mattin ikusia nikan. Joan den astean baino biziki hobekio zukan.
5- Elisa, bahaki nun gintunan herenegun bozkaria hinteke. Nun aren!Mattin hire anaiaren etxean (gintunan).
6- Iduri zunan trenpu osoan (onean).
7- Haren ez gaitzitzeko, harekin afaltzea behar ukan ginikan.
8- Hitaz mintzatuak gintunan Elisa. Eta hitz beroez.
9- Mikel, emadak gakoia eta habil aintzinean.
10- Emak haur horri jostagailu erakasgarri bat.
11- Gabiltzan elgarrekin nehorren ez galtzeko ohian hontan, ohargailurik gabe.
12- Zuek! Pulliki zabilzate! Aldapa xut da eta lerrakorra guneka.
13- Haur horiek bebiltza deusik hunki gabe. Eri horiek kutsudunak dira.
14- Hik, habil beti bezala eta ikas zak erran-zahar hori “Beti aintzina, xuxen xuxena, dabil eskualduna”
15- Margaita, izanik ere neskatto ttipi bat, amak nahi din atek hets ditzanan.
16- Errientsak nahi du ikasleek erabil dezaten liburu bera.
17- Ilhargi beherapena da, baratzeke zuhaitzak ixardekatu behar ditugu.
18- Ez dezagun lan hori egin.
19- Ekar beza baratariaren ageria.
20- Dio denbora ez dela alde lursagarrik erain ditzagun.
21- Zer nahi du egin dezatan?